

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ilharre

Aurkibidea

Udalerria: Ilharre

Sarrera



Nafarroa Behereko iparraldeko udalerria, Donapaleuko kantonamenduan, Amikuzen. Mugak: iparraldean, Bastida eta Burgue-Erreiti; ekialdean, Arboti-Zohota eta Biarno; mendebalean, Labetze-Bizkai, eta hegoaldean, Labetze-Bizkai eta Gabadi. Auzo nagusiak: Galharraga, Goiti, Larralde, Salaberri eta Labenenta. Biduze ibaiak inguratzen du udalerria hegoaldetik eta mendebaletik. Laborantzan (garia, bazkarako landareak) eta abere hazkuntzan (ardi eta behi azienda) oinarritzen da bertako ekonomia jarduera nagusia. (Argazkia www.eke.eus webgunetik hartua)

- **Biztanleak:** 148
- **Euskaldunak:** %11,45

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **11**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **11**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Kattalin Lacoste (1925-2015)



Kattalin Donapaleun sortu zen 1925ean. Gabadiko [Noël Lacoste](#) rekin ezkondu zen eta Ilharren jarri ziren bizitzen. Bi seme ukan zituzten. Herriko postako korrespontsala izan zen.

Noël Lacoste (1920-2012)



Noël Lacoste Gabadin sortu zen 1920an. Nagusi desberdinekin ikasi zuen bere ofizioa. Bigarren gerla denboran (1942) arotz bezala altxatu zuten. 1951an bere kontu jarri zen arotzerian, Ilharren, eta [Kattalinekin](#) ezkondu. Bi seme ukan zituzten. 1953an ordura arte alokatzen zuten aroztegia erosi zuten. 1983an utzi zuen arotzeria Noëlek. Pietuna ere izana da (goizetan).

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Amikuzeko arotz baten ibilbidea gainez gain (1920etik 1983ra) (ILH-001/001)

Orduko ofiziale guziek beren lana apendizgoan ikasten zuten. Noël Lacostek bide bera segitu du apendiz eta langile egonez 11 urtetik 29 urteraino, bere kondu jarri aitzin 1949an. Hortik hara bi lan egin ditu betan : goizetan piatun, arratsaldetan arotz. 1983an erretiratu da. 88 urte ditu gaurregun.

2. Arotz baten egoera munduko bigarren gerla garaian (1939-1945) (ILH-001/002)

Alemanek arotzak xekatzan zituzten beren xantierretan lan egiteko. Bere nagusia gerlara joan ondoan, Alemanek Noël ere deitu zuten, herriko beste 4 mutil lagunekin. Zortzi ilabeteren buruan, Alemaniara joan behar zuen mementoan, xantier batetik ihes egin zuen eta Euskal Herrian gorde zen, bizpauru arotzen kondu ixilka lan eginez. Egoera honek bi urtez iraun zuen, gerla bukatu arte.

3. Donapaleuko laborari alaba baten haurtzaroa eta gaztaroa (1925-1950) (ILH-001/003)

Amikuzeko neska gazte gehienek ibilbide bertsia zuten : eskola bukatu eta (10-12 urtetan) "ouvrier"-etik pasatzen ziren josten eta brodatzen ikasteko eta, ondotik, bizpauru neguz dendariaren etxetik. Igande arratsaldetan, laborari alabak patronatuan biltzen ziren (bainan ez Donapaleuko hiriko andereak). Bazen garai hartan berexkuntza soziala Donapaleuko hiriko andereen eta auzoetako baserrietako laborari alaben artean. Kattalin Donapaleu Menjou auzoko laborari alaba zen.

4. Gizon eta emazte gazten arteko harremanak 1940 hamarkadan. (ILH-001/004)

Jende gazteak biltzen ziren herriko edo auzoetako bestetan, bai eta ere ezteietan (Noël eta Kattalinen kasuan bezala). Sexualitateari buruzko gaiak ez zituzten neherekin aipatzen. Neska gaztek bilkura (bilera) batzu egiten zituzten Challet izeneko Donapaleuko bikarioarekin ; honek aholku batzu ematen zizkien, "ona" eta "txarra" non zitezken esplikatzuz. .

5. Elizaren eragina 1940 hamarkadan (ILH-001/005)

Jondonibanez (iguzkia jalgi aitzin) edo ere San Markez (rogazione edo prozesione garaia), errito bereziak betetzen ziren. Igande guzietan meza eta bezperak segitzen ziren. Errito batzu zuzenkontrakoak agertzen ahal ziren , hala nola elizan sartzea, kattalinek gogoaren kontra egin zuena. Orduko ohidurak eta betebeharrak pisuak baziren, gaurkoak eskasak direla dio Noël Lacostek.

6. Arotz baten eguneroko lanak 1940-1950 urteetan (ILH-001/006)

Arotzak sua piztuz hasten zuen eguna. Ondotik, egunaren barnean, laupabost lan mota desberdin egin zezazken . Lan handienetarik bat zen kabalen ferratzzea. Ferrak aitzinetik prestatzen ziren eta izarian emanik itzatzten. Lan delikatua zen baitziren aztapar oneko eta aztapar txarreko kabalak. Bestalde, arotzak laborantxako lan tresna ttipiak (aizkora, aitzur) egiten edo xorroztzen zituen. Arotza urtetik urtera pagatua zen, sosez.

7. Arotzen arteko harremanak (ILH-001/007)

Arotz batek ukan zezaken gaitasun berezi bat : aizkora ederrak egiteko gaitasuna, kabalen ferratzeko trebetasun handia etabar. Nahiz eta zoingehiagoka bat izan arotzen artean, prezioak elgarrekin finkatzen zituzten.

8. Arotz baten sasoineko lanak 1940-1950 urteetan (ILH-001/008)

Neguan, arotzak altzairuzko lan tresna ttipiak egiten zituen (aizkorak, aitzurrak, aihotzak, kutelak). Primaderan, lurra lantzeko tresnak konpontzen zituen (brabanak, kanadienak) eta, ondotik, belar egitekoak. Udan (eta bereziki agorrilean) errotak ferratzen zituen.

9. Arotzaren lanmoldearen eboluzioa (ILH-001/009)

Mekanika handiak agertu direlarik (ogipeitekoak, trakturrak), ura (1956) eta elektrika ezarri etxeetan, arotzaren lanmoldea azkarki aldatu da : mekanika handien konponketan hasi da, baina ere iturgintzan (hodiak egiten ura pasarazteko) eta elektrika tresnen erabiltzen (altzaria lotzeko adibidez).

10. Herriko bizia (Ilharre 1950etik 1980era) (ILH-001/010)

"Ilharre 200 biztanleko herri ttipi bat zen eta arotzarekin batera beste ofizio batzu ere baziren, horietan mahasturua, teila egilea, eiherazaina... Noël Lacoste ez zen bakarrik arotza, piatuna ere zen goizez, eta bere emaztea postako korrespontsala, bai eta ere gasa, ezentza saltzailea eta kontserba untzien zertitzailea.

11. "Ikusten duzu goizean" kantua Noëlek emanik (ILH-001/011)

Noël Lacostek hain ezagutua den « Ikusten duzu goizean » kantua ematen digu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com